


# PR-Gi 2006

## Meatze bidea

5,4 Km / 2 h 20 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## Profila
Perfil




Luzera | Longitud
5,4 km

Desnibela | Desnivel
+654 m / -39 m

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 2 | 2 h 20 min | www.mide.montanasegura.com |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke**<br>El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra**<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 1 a 3 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK | |

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Aisia-lekua**
Area recreativa

# PR-Gi 2006

## Meatze bidea

Bertako jendeak "Mina bidea" deritzo harkaizti malkartsu hauetan irekitzen den bide estu honi. Mendeetan meatzaritza zeharo garrantzitsua izan zen amezketarrentzat. 1732an hasi ziren Arritzagako meatzeak ustiatzen eta XX. mendera arte jarraitu zuten. Bada dokumenturik esaten duenik, ustiapen garairik onenetan 300 pertsona inguru biltzen zirela Arritzagako lan horietara. Eliza eta apaiza ere ba omen zituzten bertan. Aurrean duzun bide honetan barrena mugitzen zen jendea, bertatik garraiatzen zituzten elikagai eta beharrezko zuten generoa. Bertatik ekartzen zuten lurretik ateratako minerala. Hainbat eta hainbat baliabide aurki ditzakezu bidean, zoaz arretaz Arritzagako errekaren ibilguari jarraiki eta gune paregabe honetaz gozatzeko aukera izango duzu.

La gente del lugar denomina como "el camino de la Mina" a esta estrecha senda que se abre en estos encrespados roquedos. La minería ha sido para los pobladores de Amezketa una práctica muy importante. La explotación se abrió en 1732 y permaneció en activo hasta el siglo XX. Existen documentos que ratifican que en su época de esplendor unas 300 personas formaban parte de los trabajos de Arritzaga. Disponían incluso de iglesia y cura. La gente se desplazaba por la senda que se te presenta. Por ella transportaban los alimentos y el género necesario. A través de ella bajaban el mineral extraído. Son muchos los recursos que te puedes encontrar en el camino, camina atento remontando el cauce de la regata de Arritzaga y podrás disfrutar de este entorno sin igual.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



ARRITZAGAKO ARROILA: Jatorri glaziarra duen arroila honek (Euskal Autonomi Erkidegoan antzeman den bakarra), Aralarko lautada Amezketa herriarekin lotzen du. Ibilbidean zehar gizakiak utzitako aztarna ugari aurkitzen dira, ondorengoak direlarik aipagarrienak: historiaurretik 1940ra ustiatu ziren meatzeak eta bertan udara igarotzen zuten artzainen arrastoak. Euskadiko Interes Gune Geologikoen artean sailkatua dago.

BARRANCO DE ARRITZAGA: Este cañón de procedencia glaciar (único detectado en la Comunidad Autónoma del País vasco) une la llanura de Aralar con el pueblo de Amezketa. Durante el recorrido, hay multitud de huellas dejadas por el hombre. Las más reseñables son las minas que se explotaron desde la prehistoria hasta 1940 y los vestigios que han dejado los pastores que pasaban el verano allí. Está clasificado entre las Lugares de Interés Geológico de Euskadi.

b



ARRITZAGAKO ERREKA: Errekasto honek ura urte osoan zehar darama. Euri urak kareharri gogorra desegiten du urari lur azpian sartzeko aukera emanez. Ondoren, ura, ibilguan zehar dauden putzuetan sortuko da. Horri esker inguru horretan ibiltzen diren animaliek zer edana izaten dute udako egunik lehorrenetan. Arritzagako errekak hainbat adar ditu, besteak beste: Salinerreka eta Betelusko erreka; eta, era berean, berorrek Amezketa errekan isurtzen du.

REGATA DE ARRITZAGA: Este riachuelo transporta agua durante todo el año. Las lluvias deshacen las calizas duras permitiendo al agua entrar al subsuelo. Posteriormente, el agua, surge en las pozas que hay a lo largo del cauce. Gracias a ello los animales que pastan en los alrededores tienen que beber durante los veranos secos. La regata Arritzaga tiene varios afluentes, entre ellos: Salinerreka y Betelusko erreka; a su vez, vierte sus aguas en Amezketa erreka.

c



MEATZEETAKO EGITURAK: Arritzagako meatzeetan 4.000 urtez lan egin da. Ustiapen horiek guztiek aztarna ugari utzi dituzte trokarte osoan zehar. Begi bistaz ikus daitezkeenen artean daude meatzeetara igotzeko ibilbideak, ateratako mineralak garbitu, gorde eta garraiatzeko azpiegiturak edota langileen etxeak, tabernak eta zirujauarenak izan zitezkeen etxebizitzak. Ikusten ez direnen artean, berriz, mina-zuloak.

INSTALACIONES DE LAS MINAS: En las minas de Arritzaga se ha trabajado durante 4.000 años. Esas explotaciones han dejado numerosas huellas a lo largo del barranco. Entre las que se pueden observar a simple vista se encuentran los senderos de acceso a los tajos; las infraestructuras de limpieza, almacenamiento y transporte del mineral; o lo que podrían ser las casas de los trabajadores, las tabernas o la casa del cirujano. Entre las que no se pueden ver, en cambio, estarían las minas.

d



ZUBIA: Amezketako Tourseko San Martindik Igaratzarainoko bidean Arritzaga errekastoa hainbat puntutan gurutzatu behar da. Garai batean bertako langile edo artzainek, urak hazita zetozenean, zapatak kenduta edo animalen gainean igaroko zuten uraren ibilgua. Gaur egun, ordea, bideak erreka zeharkatzen duen guneetan zubiak eraiki dira oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko helburuarekin.

PUENTE: En el sendero entre San Martin de Tours en Amezketa e Igaratza la regata Arritzaga se cruza en varios puntos. Antaño, los trabajadores o pastores de la zona, cuando las aguas venían crecidas, cruzarían el cauce del río descalzados o montados sobre sus animales. Hoy en día, en cambio, en las zonas dónde el sendero cruza el río se han construido puentes con el objetivo de asegurar la comodidad y la seguridad de los usuarios.

Amezketako Udala
Gipuzkoako Mendizale Federazioa